

Funtsezko elkarteak

Funtsezko elkarteak osatzen dituzten erakundeak edo taldeak dira, helburu komunak lortzeko lankidetzak estrategikoa eskaintzen dutenak. Elkarte hauek espezializazio edo baliabide bereziak eskaintzen dituzte, gure proiektuaren helburuekin bat egiten dutenak, eta gehienetan, gure barne-gaitasunak osatzeko edo indartzeko baliagarriak dira. Horiekin elkarlana ez da soilik gure zerbitzuen kalitatea bermatzeko garrantzitsua, baizik eta eragin positiboa zabaltzeko eta komunitatearekin lotura estuagoa mantentzeko ere bai.

Gure enpresa elkarlanean arituko da elkarte ezberdinekin denbora guztian, baina baita elkarte batzuen langileak kontratatuko ditugu, aurrerago azalduko ditugu. Asoziazio desberdinekin elkarlanean arituko gara, adibidez:

Asafes: Buruko Gaixotasuna duten Pertsonen eta Senideen Arabako Elkarteak laguntza emozionaleko zerbitzuak eta integrazio-programak eskaintzen ditu osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonentzat, eta autolaguntzako eta gizarte-laguntzako jarduerak ere eskaintzen ditu. Asafesekin harremana mantenduko genuke, txarrik egiteko eta informazio deigarriak eta bezeroentzat interesgarriak direnak eskaintzeko.

Xilema fundazioa: Buruko gaixotasun larriak dituzten pertsonentzako zerbitzu espezializatuak ditu, eta baliabideak eskaintzen ditu, hala nola etxebizitza gainbegiratuak eta egoitza-arreta, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearekin lankidetzan. Kontaktuan egongo gara, kasu larriak badaude bere zerbitzura bideratzeko.

Akari Salud y Bienestar: Zentro honek yoga eta meditazio saioak eskaintzen ditu, fisioterapia eta masaje zerbitzuekin batera, oreka emozional eta fisikora bideratuak. Erreferente lokala da burua eta gorputza zaindu nahi dituztenentzat. Saioak emateko langileak subkontratatuko dugu.

Gure Kuida-T enpresak publizitaterako bi estrategia mota gauzatuko ditu; Influencer eta Youtuberrekin elkarlana egiteaz gain, barne publizitatea ere sustatuko dugu. Gure taldeko kideek sare sozialetan eta webgunean eduki espezializatuak sortuko dituzte, gure mezuak argi eta koherenteak izan daitezen. Horrela, bi estrategia uztartuz, ikusgarritasuna handituko dugu modu ekonomiko eta eraginkorrean: Influenceren bidez ikusle berrietara iritsiko gara. Bestalde, barne publizitatearen bidez gure markaren izaera eta nortasuna kontrolpean mantenduko dugu.

Zergatik da garrantzitsua baliabide hauen laguntza?

Gure enpresa osasun mentala eta ongizate emozional egokian oinarritzen denez, garrantzitsua da beste elkarte batzuekin harremanetan egotea, gu ez gaudelako espezializatuta eta baliabide honen bidez elkar laguntza sustatzeko aukera izango dugu eta langileak kontratatzeako aukera izango dugu (psikologoak).

Akari Salud y Bienestar kontuan izanda, gomendagarria izango da haiekin harremanetan mantentzea, profesionalak etorri ahal direlako gure zerbitzura eta kontratatzeako aukera izan ahal dugulako. Beste enpresekin bere zerbitzuak edo laguntza behar ditugunean beraiekin kontaktuan jarriko gara, hori zer jarduera egingo ditugun arabera izango da.

Enpresaren funtzionamenduan honako modutan lagunduko dugu: hitzaldi eta tailerren antolaketa eta kudeaketa, eduki espezifikokoak sortzea eta bezeroentzako baliabide erabilgarriak eskaintzea eta elkarte eta erakundeekin harremanak garatzea eta sendotzea, lankidetzak aukera berriak sustatuz.

Horrela, gure enpresaren ikusgarritasuna eta eragina handituko ditugu, aldi berean, gure helburu nagusiak betez.

